



*Bihar ez da gaur*  
Bonberenea Txaranga  
Bonberenea Ekintzak, 2014.

## Beti aurrera begira, giro ederrean

BONBERENEA TXARANGA ez da ohiko txaranga bat. Bere piezetan jazz, rock, Karibeko aireak eta beste batzuk antzeman daitezke, baina bere jarrera edo jarduteko modua da azpimarragarria. Musikariak gazteak dira, batzuk oso gazteak, beren musika tresnak ongi menperatzen dituzte, eta aipagarria da haien etorria, gatza eta piperra, eta bizitasuna. Jai-giroa eta alaitasuna ederki transmititzen dute, umore ona eta giro ederra, azken batean. Gainera, diskoaren izenburuak dioen bezala, beti aurrera begira daude, beti melodia, erritmo eta doinu berriak bilatzen.

Bonberenea Txarangaren etengabeko garapeneren eta bilakaeraren azken mugarrria da *Bihar ez da gaur* lana. Zortzi pieza dira, denak txarangako kideek beraiek sortuak, bat izan ezik, Dut taldearen *Unean uneko* kantuarren bertsioa egiten baitute. Ez dira txaranga baten kalejirak, fandangoak eta habanera, ur berri batzuetan igeri egiten dute, estilo edo joera berrien beldurrik izan gabe, beren eredu txaranga ulertzeko modu berri bat baita.

Grabazio saioetan, Iker Pando (gitarra), Ivan Alzate (baxua), Ekhiñe Olano (tronpa), Sorkun Rubio (ahotsa) eta Juantxo Arakama (ahotsa) aritu dira txarangako musikariek. Juantxo Arakamak berak *Gara(i)pena* kantuko hitzak idatzi ditu, eta Ion Arruebarrena txarangako kideak *Argitzalak* kantuko

hitzak. Izan ere, diskoko sei pieza instrumentalak dira eta beste bi pieza kantuz lagunduak. Karlos Osinaga teknikaria arduratu da grabazioaz, nahasketez eta masterizazioaz, eta Mikel Zelaia Bonberenea Txarangako kidea berarekin aritu da. Diseinu lanak, berriz, Joseba Poncek egin ditu. Lan handia egin dute denek, disko eder bat osatzeko, patxadaz entzun eta gozatzeko disko bat.

Bonberenea Txarangak Tolosako (Gipuzkoa) Bonberenea etxean dauka egoitza. Urte batzuk badaramatza Tolosako eta beste hainbat herritako kaleak alaitzen, eta beste zenbait talderi eta musikariri grabazio saioetan eta jendaurreko emanaldietan lagutzen.

*Bihar ez da gaur* haien laugarren diskoa da. Aurreko hirurak dira: *Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Txaranga* (Bonberenea Ekintzak, 2011), *Rocka ta urrezko komona* (Bonberenea Ekintzak, 2008) eta *Bonberenea Txaranga* (Bonberenea Ekintzak, 2005).

Hurrek, gazteek eta helduek ederki pasatzen dute Bonberenea Txarangaren kalejiretan eta bestelako saioetan, irribarrez eta dantza batean edo gorputza mugituz, bere martxa alaian. Segi horrela! ■

Joxi Ubeda



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia